



TOKIKO AGENDA 21 ZEGAMA KO EKINTZA PLANA

2013ko EMAITZAK

Gipuzkoako udalerriei
TA21eko ekintza planak
ebaluatzen zerbitzua

Laguntza teknikoa: *Enea*



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Tokiko agenda 21

Tokiko agenda 21 1992an jaio zen Rio de Janeiron ospatu zen **Iraunkortasun Garapenari** buruzko Nazio Batuen Gailurrean lortutako hitzarmen bidez.

20 urte beranduago bere presentzia **Gipuzkoan** oso esanguratsua da.

Tokiko agenda 21aren presentzia Gipuzkoan

- **83 udalerrik tokiko agenda 21** onartu dute.
- **40** udalerrik beren tokiko agenda 21a urtero ebaluatzen dute, hauen artean, gureak, udalerrri hauek **Gipuzkoako biztanleriaren % 80 baino gehiago** hartzen dutelarik. Kasu hauetan, agenda 21a kontuen emateari bideratutako udal kudeaketa eredu gisa aurkezten da.
- Aldundiak **9** urte daramatza **tokiko agenda 21aren Behatokitik** bere garapena eta ebaluazioa sustatuz, baita udal politika hauen helburuekiko kudeaketa bultzatuz ere.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza plana?



Eta gainontzeko tokiko agenda 21ekin alderatuz?

Gure planeko **ekintza kopurua**, antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz **baxuagoa** da.

Inplikaturik dauden **eragileen kopurua** lurraldeko batez bestekoa baino **baxuagoa** da.



2013ra arte zenbat gauzatu dugu?

Planaren **%40 gauzatu** da **9** urtetan


%5eko **gehikuntza** **2013**an

Eta zer adierazten du?


Lortutako gauzatze maila baxua da, kontutan hartzen badugu planaren 8. urterako ezarpen mailarentzako (urte bete gutxiago) desiragarria den **helburuko balioa** %82,5 dela.

Gainera, 8. urteko gauzatze mailaren tendentzia hartuz ere, lortutako balorea **baxuagoa** da Gipuzkoako **batez besteko balioarekin** alderatuz.

Planen batez besteko gauzatze-mailaren bilakaera helburuarekiko



Nola dago momentu honetan gure plana?



2013an amaitutako ekintza batzuk

2.1.4. Herritik igaro den Oria ibaiaren birgaitzea.

3.1.2 Gazteentzako bilgune izango diren ekipamenduak ahalbideratzea.

3.2.1 Udalerrian dauden kultur eta kirol ekipamenduen berrantolaketa eta gaurkotzea.

Ezartze-maila esanguratsua daukaten ildo estrategikoak

Burutzen ari diren **ekintza**
batzuk:

Hirigintza orekatu baten
alde apustu egitea,
hiriguneen
hobekuntzarekin jarraituz
eta **mugikortasun**
iraunkorra bultzatuz
%69ko ezarpenarekin

Udalerriko **gizarte**
zerbitzuak eta **kultur**
garapenerako aukerak
hobetzea **%63**ko ezarpenarekin

- 4.2.2 Errepidearen zabalketan aurreikusita dagoen bidegorriaren proiektua bermatzea eta honen erabilpena bultzatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio sailarekin bat eginik.
- 4.2 8 Herriko errepide sarea hobetzea, auzo guztiak irisgarri eginez.
- 3.1.1 Udala eta gazteen arteko elkarlana eta komunikazioa mantendu eta indartzea, bi norabideetan konpromezuak hartuz.

2014an sustapena behar duten ildo estrategikoak

**Udal administrazioaren kudeaketan
iraunkortasuna, kalitatea eta partehartzea**
sustatzea, **%20**eko ezarpenarekin

Informazioa gehiagorako gure web-ean dagoen **ebaluazio txosten osoa** begiratu dezakezu:

www.zegama.net

Zegamako Udaletik tokiko iraunkortasuna hobetzearen alde egin nahi dugu, gure ekintzek globalki ere izan dezaketen ondorioak kontutan izanik.

‘Globalki pentsatu eta tokian jardun’

